

ESKOLA ERRESILIENTEAK: KOMUNITATEA ERALDATZEKO INGURUMEN HEZKUNTZA BERRITZAILEA

Edeso, M.¹, Mendiburu, R.¹

¹ Aranzadi Zientzia Elkarte, Zorroagaina 11, 20014 Donostia (Gipuzkoa). medeso@aranzadi.eus

SARRERA

Iraunkortasunera begirako ingurumen hezkuntzak, aldaketa klimatikoa eta berau geldiaraz ditzaketen ekintzak azaltzeko, tokiko komunitateak eta gizarte zibilak joka dezaketen papera arbuizaten duen tonu alarmista eta ezkor bat erabiltzeko joera du.

Schools for Resilience-ek (SfR) eskolako ingurumen hezkuntzan ikuspuntu berri bat sartzen du, komunitate-ekintzan eta soziokonstruktibismoan oinarritzen dena (non ikastea prozesu aktibo eta eraikitzailea den). Bertan, ikasleek beren komunitaterako egokienak diren erantzunak definituko dituzte, beti ere ikuspuntu positibo eta eraikitzaile batetik.

Proiektuak ekimenaren, ekintzaitzaren eta sormenaren zentzua bultzatzen du, XXI. mendeko eskola egi bihurtzea ahalbidetuko duena: kanpoko mundura irekia, metodologia didaktiko berritzaileak erabiliko dituena eta ikaskuntza ikasleentzat esanguratsua egingo duena.

METODOLOGIA

PLACE BASED LEARNING (PBL) metodologiaz zera ulertzen dugu: "tokiko ingurumenaren alderdi guztiak (tokiko egoera kultural, historiko eta soziopolitikoak, eta ingurumen natural eta eraikia barne) biltzen dituen hezkuntzaren ikuspuntua, ikaskuntzarako testuinguru integratzaile moduan".

PBL metodologiak ikaskuntza, lekuen eta pertsonen ezaugarri berezituekin lotzen du. Gizartearen aldaketarako prozesu bat hasten du, ikaslea tokiko testuinguruan txertatuz eta eskola eta komunitatearen arteko norabide bikoitzeko parte-hartze aktiboa sortuz.



SEKUENTZIA DIDAKTIKOAREN PILOTATZEA

Proiektua 2015-2016ean zehar ezartzen ari da pilotu moduan, Europar Batasuneko 6 herrialdeetan zehar: Erresuma Batua, Letonia, Italia, Irlanda, Danimarka eta Euskal Herria. Diseinatu den sekuentzia didaktikoa frogatu eta hobetzeko helburua dute esperientzia pilotu hauek. Euskal Herriaren kasuan Ordiziako Oianguren Institutuan garatzen ari da, non DBHko 3. mailako 67 ikaslek parte hartzen ari diren.



Schools for Resilience
Linking schools with
local communities' sustainability

INFORMAZIO GEHIAGO:

www.schools-for-resilience.eu/eu/



ARANZADI

zientzia elkarte . society of sciences
sociedad de ciencias . société de sciences



Lifelong
Learning
Programme